

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

57/2025 Mozioa, ekainaren 18koa, Samaniego-Laguardia BHI-ko A eredua mantentzeko beharrari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2025eko ekainaren 18an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

57/2025 Mozioa, ekainaren 18koa, Samaniego-Laguardia BHI-ko A eredua mantentzeko beharrari buruz.

Arabako Batzar Nagusiek honako hauek eskatzen dizkiote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari:

1. Arabako Errioxaren eraginpeko eremuko hezkuntza-eskaintza publikoa bermatzea, hura osatzen duten udalerrietako prestakuntza ibilbideen beharrei erantzunez.
2. Ikastetxeekin koordinatuta, ezarritako mailak lortzen direla bermatzeko beharrezko neurriak ezartzea, ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak kontuan hartuta, eta ikasleei laguntza eta beharrezko tresnak ematea, gehien behar duenari gehiago emateko.
3. 17/2023 Legearen aginduei jarraituz, Arabako Errioxako eragin-eremua osatzen duten ikastetxeetan hizkuntza-proiektuak sustatzea, hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta ikasleen jarrerara positiboa planifikatzeko, hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatzen diren hizkuntza maila eta gaitasunak eskura ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 18a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA